




79 DAR~DAR~DAR



M. 10513  
R. 4722

A.T.V.  
3289



LINDIAN, beste asko bezela, mendi batean tonfor-tonfor etxe bat omen zegon, eta etxe artan anai-afeba gazte bi bizi omen ziran, berak bakarik, ume-zurtz geldituak; aurrea beren amatxo eta andik bereala aitatxo il zitzatzkien.

Autsa bildu eta autsa saldu, autsa bildu eta autsa saldu, alaxen bizi-modu uria ateratzen omen zuten anal afebatxo gajo oriek, bañan ala ere beti alkar malte-malte izanik alai bizi ziran, egunero-egunero Jainkoari eskarak emanaz.

Pertz batean autsa biltzen zuten, eta pertz ofekin, kirten alderdi bana-  
tatik bakoltzak elduta, biak ibiltzen ziran batetik bestera zefiek erosiko ote  
ziren autsa pixka bat. ¡Gizajoak!

Bein, mendian gizon bat agertu zitzaien, eta ark emango ziela beste  
bizi-modu bat esan ziren. ¡Ua poza, neska mutiltxo aena, heste bizi-modu  
obea aurkituko zutela!

Eskupeta bat eta bi zakur, aundik, eman zizkien eta eiza arapatu eta  
saltzeko esan ziren. Ala, anai eizean asi zan, eta afeba etxean egoten zan  
etxeko andre lanak egiten.

Bein, deabrua eldu zan etxe oftara, afeba bakarik zegoala. Eta atetik  
ots-egin zion:

—*Dar dar-dar, ekartzan eskuiko lenengo beatza.*

—*Ez diat emango, erantzun zion neskak.*

—*Ematen ez-badidan jan egingo aunaf.*

Au altu zanean, neska ori bildurtu, eta ate zuloetik luzatu egin zion  
beatza.

Deabruak txupatu eta tximelduta utzi zion beatz ori. Gafiera esan zion:  
*bigaf goizeko amafetan etofiko naun; ez iñori esan; bestela jan-egingo  
aunaf.*

Ufengo eguneko amafetan joan zitzaion beriz-ere deabru ori, eta atetik  
ots-egin zion: *Dar dar-dar, ekartzan eskuiko bigafen beatza.*



Luzatu zion bigarren beatza, eta deabruak txupatu eta tximel-tximel utzi zion.

Neska, geroago ta tristeago jartzen ari zan, eta anaiek, nonbait igari eta, alako batean, ea zer gertatzen zitzaien galdetu zion.

—*Ezer ez*, erantzun zion ariebatxoak; deabruaren bildur zan eta, jakitsa, itxura egin bea izan zion anaiari.

Ufengo egunean ere joan zitzaion deabrua eta esan zion: *Dar-dar-dar, ekartzan eskuiko irugarren beatza.*

Luzatu zion irugarren beatz ori eta, deabruak, beti bezela, txupatu eta tximelduta utzi zion.

Laugarren egunean laugarren beatza txupatu zion.

Neska ori gaixotu egin zan.

Anala, beti galdezka zeukan eta, atzenean, zer gertatzen zitzaien aitortzera bea izan zuan.

Eiztari ori etxean gelditu zan boskaren egunean. Bere bi zakufak neskaren oe-adarai lotu eta bera erdian eskupetarekin jari zan.

Deabruak, etofi eta atetik ots-egin zuan: *Dar-dar dar, ekartzan eskuiko boskaren beatza.*

—*Ez, ez diat emango*, erantzun zion neskak.

—*Biok jango zaituztet, ematen ez-badidan.*

Eta ala, deabrua, atepak au-  
tsi ta baiura sartu zan.

Orduan mutilak azkatu eta  
axatu zizkion zakurak eta biren  
artean deabru ori txiki txiki-egin-  
da utzi zuten.

Aiek ziran ka-  
raxik, deabruak  
ateratzen zitunak,  
txakurak kosk-egi-  
ten zioten bakoi-



tzean. Euzakur  
alkafekin jafi-ta,  
guziok batera  
zaunka asi-ta  
ere, deabruak  
atera zituan oru eta mañu izu-  
gafi aiek bezelakoak, eun txa-  
kurak ez ziltuztela aterako,  
esan zuten anai afebak.

Goñtu beaf zuten senide-  
txo bi oriek.

Amar leguako zabaleran,  
inguru guzi-guziko mendi-ga-  
lur, ibaf-alde, toki zabal, ibal-  
baster, leize-zulo, eri eta

etxeetara eldu omen ziran deabru okeftzaré ofen ifintzi aundi eta likaraga-  
fiak.

¡Noizbait ere pakea sartu zan mutil neska oien etxean!

Bañan deabrua ez da bein-ere geldirik egoten eta bere grina zitara  
agertu nai izan zien gazte bi oiei.

Bein mutil ofi, mendian eizean zebilela, gizon bat agertu zitzaion eta  
esan zion: *Goazemak nere etxera*. Eta, ala, eraman zuan palazio batera,  
sartu zuan bafenera eta kuarto bateik atera eta bestean sartu, kuarto bate-  
tik atera eta bestean sartu, pessa arazi zizkion amabi kuarto, eta amairuga-  
renean sartu zuanean esan zion: *Bai-el-dakik nork il zuan nere anai?*

Eta amairu ateak amairu giltzakia itxi eta an utzi zuan mutil gizajoa.

Orduan elztari-mutil ofek bere zakuñai deadañ egin zien, gefitikan zin-  
tzilik zeraman adara aitu ta bere indar guziaz jo-ta: *Tu-tu-tu, tuturutu, tu-  
tu-tuu.....*

Bañan dana ixilik. Ez zioten inondikan erantzunik bialdu.

Beñiz-ta-beñiz-ere, deadañ egin zien: *Tu-tu-tu, tuturutu, tu-tu-tuu....*

Eta alako batean, mendian, uruti, zaunka otsa zalakoan edo ez-zalakoan  
aditzen omen zan.

Deadañ egin beñiz ere: *Tu-tu-tu, tuturutu, tu-tu-tu...*

Zaunka-otsa geroago ta erosoago eta geroago ta erosoago aitzen  
omen zan.





Noiz-baitean ere, bi zakurak iritxi ziran palazioko ateetara; bai-ta bertan txikitu deabrua, autsi amairu ateak eta beren nagusia libratu ere.


Gero ango ondasunak artu eta etxera joan emen zan. Eta ala, uste gabe, erabat aberastu eta eri batera jetxi eta an anai-arebak eta zakurak ondo bizi izan omen ziran.

Gañera, etxean sartu baño len, bideko baso batean, basurde izugarizko bat ankaz-gora bota zuan eskupetaz baliatuta. Negu guzrako janari ugari eta eder askoa izan zuten guziok, uste-gabean alik eta gutxiagoren beaŕean zeuden garalan.

Ori egia ba-zan sartu dedila kalabazan.









A 1  
32